



**2014KO APIRILAREN 25EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko apirilaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 24 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA BOST ZENTIMO (23.572,05 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ELEKTRIZITATE HORNIDURAREN KONTRATAZIOA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2014ko marxoaren 28ko foru aginduaren bitartez, IBERDROLA GENERACION SA (IFZ.:A95075586) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioa (X13018) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2014ko apirilaren 21ean emandako txostenaren arabera proposatu du hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako argindar kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko ehun eta laurogeita hamar mila (190.000 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.



Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA GENERACION, S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- Esleitzea "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X13018) IBERDROLA GENERACION S.A. enpresari (IFZ.:A95075586), esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzeko atala da honekin batera doan laburpena, prezio unitarioena eta aldiarena, 2014ko urtarrilaren 21ekoa, bere espedientean dagoena.

BIGARREN.- IBERDROLA GENERACION SA, N.I.F.:A95075586, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, elektrizitate kontsumoen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]